

B

BARREN

# Sei urtez Euskadiko txapeldunak

Ane Urain eta Aintzane Arizmendi,  
eskubaloi jokalaririk

TOKIKOM



# Haur kanta eta jolasen ikastaroa

2-8 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzat.

Noiz: **apirilak 21**

Non: **Kultur Etxeko sotoan**

Ordu egia: **10:00-14:00**

10:00etatik 12:00etara gurasoentzat bakarrik

12:30etik 14:00etara hurrekin jolastuko dugu

(10:00-12:00 bitarte zaintza zerbitzua egongo da)

Zenbatekoa: **5€**

Izen-emate epea:

**apirilak 19**

Informazio gehiago:

Elgoibarko Izarra Ubitarte 4-behea

943 74 16 26 (Naiara)

[atxutxia maika@elgoibarkoizarra.com](mailto:atxutxia maika@elgoibarkoizarra.com)



# kiribika



## Kantuz kantu

Badator Aste Santua eta Elgoibarko Parrokiko Abesbatzak, urtero lez, elizkizunetan parte hartuko du, eta hemendik gonbidapena egin nahi nuke, batez ere, Ostiral Santuan ohitura bihurtu den *Hil da Jesus* entzutera.

Gaztetan, gutxienez Asteko elizkizun batera joan behar zen, eta gehienetan beste herrietara joaten ginen, kanpokoa hobetzat jotzen baitugu. Halako batean herriko Parrokiara hurbildu ginen eta korua eta *Hil da Jesus* deskubritu nituen. Harrezkero, Ostiral Santu egunean Parrokira joan izan naiz, gehienbat abesti eder hori entzutera.

Inbidia pixka bat ematen zidan, baina ez nuen inoiz pentsatuko koruan abestu nezakeenik. Ez naiz gaztea, ez daukat eskolan ikasitako solfeo apurra besterik, baina behin, korua lagun bila zebilela irakurri nuen, San Bartolome bezperako Salbea abesteko eta han joan ginen ahizpa eta biok probatzera.

Ikusi genuen koruko partaideak gure antzekoak zirela, gehienek ez zuten solfeorik, gogoa, lana eta pertseberantziarekin ikasten zituzten abestiak. Gu horretarako prest geunden, animatu gintuzten eta aurrera egin genuen.

Nork esango zidan niri duela gutxi eserlekuan entzuetetik, korutik abestera pasatuko nintzenik! Nork esan-

go zidan Haendelen *Aleluia*, Bereziartuaren Salbea edo Gounoden Meza abestuko nituenik!

Inor ni bezala balego, etorri eta probatzera animatu nahiko nuke. Orain une egokia da, besteak beste, San Bartolome eta Santa Zezilia jaiak prestatzen hasita baikaude.

Abestea atsegin baduzu eta lanerako gogoa baduzu, agertu entseguetara, asteazkenetan iluntzeko 20:30ean, Parrokian. Eta ez zaitzala beldurtu "parroki" hitzak.

Animo! Zure zain gaude.



Maite Loiola

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Abestea atsegin baduzu eta lanerako gogoa baduzu, agertu entseguetara, asteazkenetan iluntzeko 20:30ean"**

# Laster ezkontza gehigarria

Publizitatea egin nahi baduzu jarri gurekin harremanetan



**943 744 112**

**barren@elgoibarkoizarra.com**



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




EL GOBIERNO LESLEA



MENDAKO UDALA



AIRE AIRE 12



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Mendi-lasterketak

Ainhoa eta Iñigori: *Mendi-lasterketak*. Zuek natural uztartzen dituzue bi berba horiek, baina niretzat kontrajarriak dira.

“Mendi lasterketekin liluratuta dagoen jende asko dago, baina ez dira gutxiago horrelako kirol ekintzak ulertu ez, eta gainera egin nahi ez dituztenak” diozu, Iñigo. Zer da ulertu behar duguna? Gimnasioan doitutako makina ia perfektuak diren zuen gorputz horiek ez dutela beste inon aurkituko mendia baino pasarela egokiagorik, euren lehiakortasun ahalmena agerian lagatzeko? (Hartu arnasa!) ...”beste abiadura batean mugitzen garela soilik”. Hori al da mendira lehiatzera joateak daukan ezberditasun bakarra? Sinisten al duzu soiltasun horretan, Iñigo? Abiada handitzeak ondorioak dakartza beti eta bestela, begira arreta pixka batez zure ingurura.

Sentitu al duzue inoiz naturarengandik alde egiteak sortzen duen malenkonkia? Sekula irten al zarete bide nagusitik eta bazter izkutuen bila abiatu? Sekula gertatu al zaizue, erreka zuloan zaudetela, ustekabeko zarata batek bihotz taupadak azkartzea? Susmoa daukat zuen bihotz azelerazioak bestelakoak direla eta, beti ere, pulso metroaren menpe daudela.

Adineko mendizale bati irakurri nion behin, egunero joaten zela mendira, eta egunero apalago jaisten zela menditik. Horixe da nik menditik ekarri nahi dudana bueltan, eta ez aurreko urtean eginiko errekorra hobetzeak ematen duen poza.

Mikel Osoro

### Herrira

Herrira sortu da. Euskal Herrian hutsik dauden aulkiak betetzea da bere xedea. Zentzu honetan, helburu honekin bat egiten duten herritar guztiei espazio eraginkor bat eskaintzera gatoz, eremu ezberdinetatik eta konpromiso ezberdinekin, eginahal honetan ahalik eta indar gehien batzeko. Gure helburuekiko aldeotasun jarrerak dituzten herritarrekin eta eremu guztiekin batera lan egin nahi dugu, hauei entzunez, elkarlana bultzatuz, mugimendu parte-hartzaile eta zabal bat eratuz.

Herrira sortu da. Hau ez da aktibista kopuru zehatz bateko mugimendua. Hau preso eta iheslarien etxeratzea ahalbidetu nahi duen herri mugimendua da. Herrira gehiengo zabal baten nahia

antolatzea dator, nahi hau mobilizazio bihurtzera. Herritarren ahotsa eta ekintza da Herrira. Denok gara Herrira.

Urtarrilaren 7an Bilbon burutu zen mobilizazioa erreferentzia argia da preso eta iheslariak etxeratzeko lanean. Hilabeteetako lanaren emaitza izan da manifestazio kolosala. Presoen gaia eztabaida politikoaren erdigunean kokatzeko baliagarria izateaz gain, gizartearen konpromisoaren erakusle izan da. Bihartik aurrera bide horretan gehiago izateko lan egingo dugu. Askotariko herritarrek batu nahi ditugu, askotariko ekimenean.

Askotariko herritarrek batu nahi ditugulako, gaur azken ostirala, plazan burutuko den elkarteratzerako deia egin nahi duzuegu, plazan 20:00etan, zenbat eta gehiago elkartu, orduan eta eragin handiagoa lortzen delako. Honekin batera, apirilaren 3an, Kultur Etxeko sotoan, 19:00etan egingo dugun herri bilgunera etortzeko gonbidapena egiten dizuegu.

HERRIRA, Herri bilgunea

### Geurea ikurriña!

Madriidik inposaketa baino ez datorkigu. Horrela izan da eta horrela izango da lotzen gaituen katea apurtzen dugun arte. Azkenaldiko oinarriko eskubideen aurkako lan erreforma nahikoa ez, eta orain bandera hori-gorria ere geure plazetan jartzera derrigortzen gaituzte. Hainbeste urte eta gero lortu ez duten gure herriaren asimilazioa helburu, PP eta enparauk abiatutako bidean, beste geltoki bat baino ez.

Oraingoan lege bidez lortu nahi dute urte luzeetan komunikabideek, poliziak, epaileek eta baita ejerzitokak ere lortu ez dutena. Jai dute. Espainiara lotzen gaituen katea behin betiko apurtzeko beharra areagotzea baino ez dute lortuko. Inork Euskal Herriak Espainian etorkizunik ez daukala ikusten ez bazuen, gaur hori ez ikusteko, itsu behar luke.

Buruarekin jokatu behar dugu, baina independentziarantz pausoak sendo emanez, etenik gabe. Horregatik inposaketa berri honi erantzuteko asteburu honetan hasi eta apirilaren 8ra, Aberrir egunera bitarte, herritar guztiei ikurriña etxeratzeko balkoietan, gazte lokaletan, denda eta abarretan haizatzeko deia egiten dizuegu.

Elgoibarko Ezker Abertzalea



Zuhaitz  
Gurrutxaga

Aupa, Unai!  
Orain dela pare bat aste, igandez partidua neukan, eta aurreko egunean, larunbatean, zeregin handirik ez eta Elgoibarko kiroldegira gerturatu nintzen. Eskubaloi partidak zeuden bertan, eta

arrebarekin batera, harmailetan eseri eta arratsalde pasa egin genuen. Benetan harrিতта utzi ninduten hainbat gauzak. Lehenik, senior mutilak aritu ziren. Ez naiz ni eskubaloian aditua, baina benetan maila polita erakutsi zutela iruditu zitzaidan. Ondoren, senior neskek aritu ziren. Egjari zor, esan beharra dut ez dudala emakumeen kirola merezi adina jarraitu inoiz, eta aitortu behar dut, Elgoibarko nesken eskubaloi taldea ikusten zinez gozatu nuela. Entreenigarria iruditu zitzaidan, joku polita eta erritmo bizikoa. Baina larunbat arratsalde hartan gehien harritu ninduen, kiroldegiko harmailetan sortu zen giroa da.



Unai  
Arrieta

Aspaldian ez dut kiroldegira eskubaloi partida bat ikustera joateko aukerarik izan, baina jakinaren gainean nago Sanlo eskubaloi kluba sortzen ari den mugimendu eta giroaz. Oker ez banago, joan den larunbatean beste behin ere kiroldegia bete egin zen Alcorta Forging Group senior mutilen partida ikusteko. Alcorta eskubaloi taldeak 32 eta 29 hartu zuen mendean Ford Mugarri Arrasate liderra. Emaizta horri esker, igoera fasea jokatzeko txartela ematen duen sailkapeneko bigarren postuan jarraitzen dute senior mutilak.

Ez dira hor amaitzen Sanlo eskubaloi klubeko jokalarien lorpenak. Tecnifuelle senior neskek Euskadiko Liga irabazi dute. Lauko jubenil neskek eta IMH kadete neskek, berriz, Euskadiko Txapelketako lauko finala jokatzeko sailkapena lortu dute. Grupo Eibar kadete mutilak eta Beristain jubenil mutilak Gipuzkoako Txapelketan goi-goian dabil-tza. Federopticos Ikus infantil neskek berriz, Gipuzkoako finalean sartzeko aukera handiak dituzte. Eskubaloi Eskolako txikienak ere ederki ari dira beraien txapelketetan.

Benetako emaitzak, ordea, Zuhaitz, joan den urrian astekari honen bitartez jakin genituen datuak dira: “2011-2012 denboraldi honetan Sanlo eskubaloi klubak federatutako 11 talde eta 230 jokalaria inguru izango ditu”. Horiek bai direla emaitza arrakastatsuak. Ba ote dago 230 herritar gazte eskubaloia bezalako jarduera osasungarri eta dibertigarri batetan inplikatzera baino emaitza hobea gorri?

## “Urte askotako lanaren ondorioz dauka eskubaloi elgoibartarrak gaur egungo osasun ona”

Haur, gazte eta jende nagusiz baterik zeuden eserleku guztiak, giro eder eta noblea nabari zen. Jokalari elgoibartarrez osatutako taldea, ikusle elgoibartar andanak animatzen zuen indarrez. Nik baino hobeto dakizu zuk, Unai, urte askotako lanaren ondorioz daukala eskubaloi elgoibartarrak gaur egungo osasun ona, eta txalotzekoa da guzti honen atzetik aritu den jendearen beharra eta pasioa. Poza eta inbidia ematen dit Elgoibarren eskubaloiak daukan egoera politikak. Eta gomendatzen diot oraindik kiroldegira joateko aukerarik izan ez duenari, azaldu dadila larunbateko txikiteoa baino lehen eskubaloi partidaren bat ikustera. Merez du, bai.

## “Jakinararen gainean nago

## Sanlo sortzen ari den mugimendu eta giroaz”

Txoraturik nauka benetan proiektu honen partaide diren zuzendaritza-batzorde, entrenatzaile, monitorea, jokalaria, guraso, laguntzaile, babesle eta zaleek sortu duten olatuak. Bejondeizuela denoi. SIREKETAKE-BU!



ESKERTZA

## JUANA ISASTI IRUSTA

2012ko martxoaren 21ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## “Jendea partidak ikustera etorri dadila eskatzen dugu”

Aintzane Arizmendi eta Ane Urain eskubaloijokalariak dira. Hurrenez hurren 18 eta 19 urte dituzte gazteek, baina dagoeneko sei bider irabazi dute Euskadiko eskubaloiko Txapelketa. Infantiletako bigarren urtean jantzi zuten domina lehen aldiz, eta ordutik, urtero errepikatu dute. Euskadiko selekzioan ere jokatu izan dute makina batean, beraz, gazte izan arren, ezin esan eskubaloian hasiberriak direnik. Senior mailan lehen urtea egin berri dute, eta orain arteko mailekin alderatuta aldaketak igarri badituzte ere, ez diete horrek eskubaloia lagatzeko tentaziorik piztu. Gustura dihardute jokoan, baloiarekin jolasean, eta aurrerantzean ere horrela jarraitzeko asmoa daukate biek ere. Taldean dagoen giro onak laguntzen die horretan.

**Zer da Sanlo zuentzat?**

**Ane:** Hasiera batean klubean sartzen zara eskubaloia gustatzen zaizulako, eta gerora ezagutzen duzu benetan, Sanlo. Gainera, asko aldatu da gu hasi ginenetik: gu alebinak ginenean eskola kiroletan genbiltzan, gaur ordea, eskubaloi eskola ere badute... Sanlo handitzen ari da poliki-poliki.

**Aintzane:** Denbora aurrera joan ahala aldatzen joan zaigu Sanlo ikusteko modua. Joan den urtera arte koadrilako denok osatzen genuen taldea, koadrilakoak eta urte bat nagusiagoak direnekin, ala gazteagoekin, baina lagunartean beti. Aurten, ordea, desberdina da guretzat. Seniorren ekipoan sei elgoibartar baino ez gaude, eta horiek, gure aldean nagusiak dira, gainera.

**“Sanlo handitzen ari da poliki-poliki”**

**- ANE URAIN -**

**Alebinentzako eskubaloi eskola aipatu duzue. Lehen, Eskola-Kiroleko hiru kiroletan jarduten zuten txikienek. Orain kirol bat aukeratzaren dute alebinetan. Zer deritzozue horri?**

**Aintzane:** Gaizki. Azken batean ume horri bide bat markatzen ari zarelako.

**Ane:** 10 urte dituzunean ezin duzu jakin zer egin nahi duzun 18rekin. Ni neu adibidez, txikia nintzenean, Eskola Kiroletako hiru kiroletan eta atletismoan aritu nintzen. Eta horiek ezagututa erabaki nuen eskubaloian jarraitu nahi nuela, baina gerora.

**Aintzane:** Hala ere, baina, eskubaloi eskolan aritzeko Eskola Kiroletan ere izena emanda egon behar dute umeek, beraz, ez dago gaizki.

**Futbolak mutilen kirola izatearen fama izan du sarri. Neskena eskubaloia da, Elgoibarren?**

**Ane:** Egia esan neska asko dabil eskubaloian. Mutilak baino gehiago garelako uste dut. Bereziki gaztetxoetan igartzen da gehien: alebinetan, adibidez, buruz ez dakit, baina gerta daiteke nesketan hiru ekipo egotea eta mutiletan bakarra.

**Eta behin nagusituta, futboleko sarritan salatu izan den moduan, eskubaloian ere egiten da bereizketarik neska eta mutilen artean?**

**Ane:** Nik ez dakit klubeko zuzendaritzan zertaz jardungo duten eta zertaz ez. Ez dakit. Baina afizioan gutxienez asko igartzen da.

**Aintzane:** Egia da zuzendaritzako batzuk ere joaten direla senior mutilen partidak ikustera kanpoan jolasten baldin badute, guk egun berdinean etxean jokatzen dugunean, eta hori ez da inorentzat gustukoa. Hala ere egia da, mutilen partidak azkarragoak-edo direla sarritan, baina dena ez da hori. Guk ere ondo jokatzen dugu, joku polita eskaintzen dugu, eta asko eskertuko genuke afizioa gurekin egotea.

**Afizioan igartzen da orduan alde gehien?**

**Aintzane:** Bai. Hori da azken batean guk eskatzen duguna. Jendea etorri dadila partidak ikustera, baina etorri ez ezik, parte hartu dezala. Animatu gaitzala, eta zarata atera. Adibidez, orain gutxi jokatutako partida batean arbitroarekin arazo dezente izan genituen, eta horrelakoetan ezin dugu geuk hasi ezer esaten, gainerakoan geure buruari kalte egingo genioke-eta. Baina afizioa hor izanez gero, harmailetatik entzungo luke arbitroak entzun beharrekoa.

**Ane:** Halere egia da, Aintzane eta ni ez gaudela kexatzeko moduan. Orain arteko urteetan, aurtengoa aparte lagata, demaseko afizioa izan dugu. Gurasoen partetik babes handia izan dugu, partidetan edo fasea jokatutako dugunetan hor egon dira beti. Gauza asko egin dituzte taldearen alde, eta kamisetak saltzen ere aritu ziren... Eta txaranga ere etorri zen gu animatzera Espainiako fasea hemen jokatutako genuenean.

**Aintzane:** Orduan, noski, horrek ere sortzen digu guri orain falta hau igartzea. Orain arte afizio handia izan dugun seinale.

**Euskadiko txapelkunak izan zarete sei urtez jarraian. Baina txapelketak berdinak izan dira urte guztietan?**

**Ane:** Ez. Senior mailan aldatu egiten da. Seniorretan liga batean hartu dugu parte, eta partidaz partida izandako emaitzen arabera joan gara postuetan gora egiten. Geuk lortu ditugu puntu gehien, eta horregatik irabazi dugu. Baina, jubeniletan adibidez, ligako partidetak emaitzen arabera postuetan gora egin ostean fasea jokatutako behar izaten da. Ligan lehenengo lau postuetan geratutakoek jokatzen dute fasea,

eta hor erabakitzen da zein den txapelkuna. Hiru egunean hiru partida jokatuta.

**Aintzane:** Desberdina da jubenilak arte txapelkun geratzeko modua, eta seniorretan txapelkun izatekoa.

**Eta zein modu gustatzen zaizue gehien?**

**Ane:** Seniorretakoa. Faserik gabekoa. Besteak presio askoz gehiago sortzen duelako. Esate baterako, gu iaz lehenak geratu ginen ligan, baina gero fasea jokatutako beharra zegoen. Hiru egunetan hiru partida. Denetik gertatu daiteke, eta egun txar batek ordura arte lortutakoa pikutara bidali dezake.

**Jubenilen mailara arte adin tarte batzuk daude; seniorretan, ordea, 18 urtetik gorako guztiak batzen dira taldean. Zuek 18 eta 19 urte izanda, alde handia igarri duzue bi mailen artean?**

**Aintzane:** Giroan igarri dut nik alde gehiago jokoan baino. Hau da, orain artean ezagunak ziren ekipokoak, eta beste taldeetakoek adin antzerakoa zeukaten. Orain ez, eta ni hasieran lekuz kanpo bezala sentitu nintzen parean neukan jokalaririk, esaterako, 30 urte zituela ikusita. Dagoeneko ohitu naiz, horretara.

**“Taldeko giroak motibatzen nau eskubaloian jarraitzeko”**

**- AINTZANE ARIZMENDI -**

**Zerk lotzen edo motibatzen zaituzte eskubaloian jarraitzeko?**

**Aintzane:** Taldean gustura sentitzeak batetik, eta ariketa fisikoa egiteak bestetik. Badakit-eta, ni bestela ez naizela bakarrik korrika egitera joaten den horietakoa. Eta taldeko giroak.

**Ane:** Ni ere taldeko giroak. Desberdina da koadrilakoek osatzea taldea, edo jende desberdinarekin denbora hori partekatzea. Beroak zabalik hartu gaituzte taldean, eta oso gustura gaude.

## Salbatorearen zaharberritze lanak bukatuta, bere lekura ekarri dute bueltan

Marina del Rey zaharberritzaileak egin ditu eskulturaren berritze lanak

**T**xankakoako zubiaren gainekaldean zegoen Salbatorea irailan eraman zuten zaharberritzera, eta lanak bukatuta, ekarri dute berriz ere bueltan. Ecce Homo salbatorearen eskultura Txankakoa zubiaren ondoko otoiategian egon zen 1953ra arte, eta uholdeek sortutako kalteen ondorioz, denbora batez San Bartolome parrokiari eraman zuten, gero berriz ere lehen egondako leku ingurura eraman zuten. Eta hor egon da 1995etik gaur arte, 2011ko irailan zaharberritzera eraman eta martxoan bueltan ekarri duten arte, alegia.

### Joan Bautista Mendizabalek egina

Salbatorearen eskultura zaharberritzeko asmoak kuriositatea piztu zuen batzuen eta besteengan, eta tartean, Marina del Rey zaharberritzaileak eta Pello Arrieta historialari elgoibartarrak hianbat ikerketa abiatu zituzten norberak bere kabuz, Salbatorearen jatorria jakin nahian. Biak ala




*Ezkerrean, zaharberritzera eraman zuteneko argazkia eta eskuman gaur egungoa.*

biak ondorio berdinerira iritsi dira, gainera: Joan Bautista Mendizabal eskulturgile eibartarrarena da Salbatorearen lana. Arrietak adierazitakoaren arabera, XVIII. mende

bukaerakoa da eskultura. Salbatorearen eskultura ez ezik, San Bartolome parrokiako erretaula ere Mendizabalek egina dela adierazi du Arrietak.

## Ainara Ladron aske utzi zuten martitzenean



Ainara Ladron gazte elgoibartarra aske geratu zen martitzenean, 30.000 euroko bermea ordaindu ostean. Harrera egin zioten senide eta lagunak, eta biharko ere ekitaldia eta hainbat ekimen antolatu ditu Herrira herri mugimenduak.

Martitzenean goizaldeko 3:00ak aldera iritsi zen Ainara Elgoibarko Plazara, eta iritsi ahala ez ziren falta izan gaztearentzako bertso, dantza edo kantuak. Bihar 19:30ean hasiko da Herrirak antolatutako ekitaldia, eta ondoren poteoa, afaria eta kontzertua ere izango dira. 2010eko urrian atxilotu zuen Ladron Espainiako polizia, Segiren kontra Grande Marlasca epaileak agindutako operazio polizialean. Berarekin batera

beste hamahiru gazte atxilotu zituen polizia, eta dagoeneko guztiak baldintzapean aske geratu dira.

### Pintadak salatu ditu alkateak

Pintada bat egin zuten Plaza Handiko frontoian Ainara Ladron elgoibartarrari ongi-etorria emanaz, eta Alfredo Etxeberria alkatea oso haserre agertu zen: "Udalarentzat kostu handia eragiten du horrek, eta ez dute inolako ekarpenik egiten, zikindu bakarrik". Sekulako errespetu falta iruditzen zaiola gaineratu du Etxeberriak, eta ekintza horiek salatu ditu. "Badakigu udaletzeko zinegotziak egon zirela ongi-etorrian, eta ez ziren gai izan pintadak ebitatzeko", esan du, eta horrelakoak berriz ez gertatzeko eskatu du: "Ofentsa bat da, pankartak kendu daitezke, baina pintadak ez".

Azkenik, Bildukoek Arnaldoren aldeko pankarta jartzeko eskatu dutela gogoratu du Etxeberriak, eta Udalak "borondate onez" udaletzeko balkoian pankarta bat jartzea baimendu duela nabarmendu du, "sekula egin ez denean" eta, aldiz, Ezker Abertzalearen mugimenduak pintada batekin erantzun duela gaineratu du.



## Berba 'Bateragune auzia'



Lerro hauek idazterako uanean Auzitegi Nazionalak *Bateragune Auziaren* ganean emandako epaia berretsi edo baliogabetzea aztertzen ari zen Gorenara. Fiskaltzak epaia berrestea eskatuta zeukan, Arnaldo Otegi eta gainerakoak ETako kideak direla argudiatuz. Otegiarentzat eta Diezrentzat hamarna urteko zigorra eskatu zuen, eta Jacinto, Rodríguez eta Zabaletarentzat zortzina urtekoa. Defentsak, aldiz, auzia oinarrigabea dela eta, errugabetasuna eta absoluzioa eskatu zituen auzipetu guztientzat. Eguazten iluntzean kontzentrazioa egin zuten Plaza Handian Otegi eta gainerakoen askatasuna eskatzeko.

## Egitasmoa Tupper kanpaina

Arraina eta okela erosterakoan paper edo plastikorik ez erabiltzeko tupperren aldeko kanpaina abiatuko du Udalak apirilaren 10etik 14ra bitartean.

Elgoibarko harategi, arraindegi eta urdaitegi gehienek hartu dute parte, Udalarekin batera, kanpaina honetan, eta tupperren erabiltzaileek sariak ere izango dituzte. Izan ere, herritarrek ontziak erabiltzen dituzten bakoitzean hilabeteroko zozketa batean parte hartzeko txarteltxo bat jasoko dute dendan.

Ontziak banatuko dituzte azoka plazan apirilaren 10etik 13ra bitartean 11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara, eta apirilaren 14an, 10:00etatik 14:00etara.



## Guasseko aparkalekuaren funtzionamendua salatu du bilduk

Udalak Guasseko aparkalekuaren ganean egindako gestioa salatu, eta bestelako kudeaketa modu bat proposatu du Bilduk. Guasseko aparkalekua ordainpeko moduan jarri zuen Udalak, baina ez zuen erabilerririk izan, eta hortaz, aparkaleku batzuk erabiltzaile pribatuek alokatzeko aukera eskaini zuen Udalak, hilean 25 euroren truke. 4.500 euroko alokairua ordaintzen du Udalak hilean lurzoru horrengatik, eta hortaz, aparkaleku bakoitzaren truke erabiltzaile pribatuek ordaindutako 25 euroek ez dute lurzoruaren kostua ordaintzen. Hori horrela, gordetako leku pribatuen kostea herritar denen artean ordaintzen ari direla salatu du Bilduk, eta proposatu dute libre geratu diren aparkalekuentzat erabili dadila Plaza Txikian edo Pedro Muguruzan erabiltzen den ordu eta erdiko doako sistema. Salaketa egiteko erabili duten bideoa eta informazio guztia [www.bildu.info/elgoibar](http://www.bildu.info/elgoibar) orrian irakurri daiteke.

## Txakurrak aske eraman edo euren kaka ez jasotzeagatik isunak

Udaltzaingoak jakinarazi duenez, apirilean ahalegin berezia egingo dute udaltzaitezainek animaliak eduki eta babes-teko ordenantza betearazteko.

Txakurra kalean lotu gabe eramatearren 300 euro eta 1.500 euro arteko isuna jaso daitekeela jakinarazi dute, eta txakurrak egindako kaka ez jasotzearen, berriz, 30 euro eta 300 euro artekoa. Horrez gain, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukiz gero, udaltzaitezainek baimenak egoki daudela ere egiaztatuko dutela jakinarazi dute.

Espainiako bandera jarriko dute Elgoibarko udaletxean, legeak hala behartuta.

## Zer iruditzen zaizu Elgoibarko udaletxean Espainiako bandera jartzea?



**Itxaso Alguacil**  
23 urte

Probokazio hutsa dela iruditzen zait. Nire ustez, bandera horrek ez du ordezkaten herri honek benetan nahi duena, eta gehiengoaren sentimenduen kontra doa Elgoibarko udaletxean bandera jartzea. Gainera, gaur egungo egoera politikoan aurrerapauso bat baino, atzerapausoa da.



**Juan Martin**  
65 urte

Legeak derrigorrez jarri behar dela esaten badu, errespetatu egin behar dela iruditzen zait. Nik ez dut faltan bota Espainiako bandera Elgoibarren, eta ez badute jartzen ere ez zait ajola, baina onerako edo txarrerako, legeak betetzeko egiten dira.



**Michaela Achim**  
23 urte

Ondo iruditzen zait, ideia oso ona dela uste dut. Azken batean, Espainian bizi gara, eta udaletxeko balkoian Espainiako bandera jartzea logikoa da. Ni Errumaniakoa naiz, baina orain espainiar nazionalitatea daukat, eta bandera horrek denok ordezkaten gaituela uste dut.



**Nestor Fuente**  
37 urte

Gaizki iruditzen zait. Azken 800 urteetan bizi izan dugun kolonialismoaren beste ezaugarri bat da udaletxeko balkoian Espainiako bandera jartzea. Horrenbeste urte pasatu arren, oraindik kolonializatu jarraitzen dugu, eta hortxe dago horren arrazoia.

## ■ SEMAFOROA



**Gure auzoko postontziak lurrera erortzeko zorian daude:** “Orain dela pare bat hilabete autoren batek gure auzoko postontziak jo zituen, eta ordutik lurrera erortzeko zorian daude. Ez dakit noren lana den hori behar den bezala jartzea, baina dagokionari eskertuko genioke lehen bailehen konpontzea. Mila esker”.



**Txalo bero bat Ikastolako irakasleentzat:** “Guraso talde bat gara, eta Ikastolako irakasleei txalo bero bat eman nahi diegu, Lehen Hezkuntzako umeen jaialdia oso polita izan zelako”.

**Hilerriko atarian dauden edukiontzien itxura txarra ematen dute:** “Aspaldi bukatu zituzten Olaso hilerriko ataria berritzeko lanak, baina obretako edukiontzia oraindik hantxe atarian daude. Hilerriko sarrera dotorea da benetan, eta edukiontzia horiek itxura txarra ematen dute”.



## Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa jokatuko dute asteburuan Herriko Antzokian

Miren Astigarragak bigarren egin zuen Oiartzungo txapelketan

**D**atorren asteburuan Elgoibarko XI. Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa jokatuko dute Herriko Antzokian. Guztira 72 dantzarik hartuko dute parte, eta tartean 11 elgoibartarrak: Julen Gillo, Eneko Gonzalez, Saioa Marcos, Maialen Loyola, Alaitz Egaña, Amaia Astigarraga, Nerea Sasiain, Miriam Ferreiro, Leire Astigarraga, Andrea Arregi eta Miren Astigarraga. Zapatuan eta domekan jokatuko dituzte saioak; lehenengoa 16:30ean eta bigarrena 11:00etan.

Azken bi urteetan, 2010ean eta 2011n, etxeko dantzariak izan dira nagusi Elgoibarren, Aitor Asenjok eta Ane Espillak bi urtez jarraian irabazi dute-eta Elgoibarko Txapelketa.

### Oiartzungo txapelketa

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasleek Oiartzungo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan hartu zuten parte, joan den asteburuan, eta nesketan bigarren egin zuen Miren Astigarragak. Gainerako elgoibartarrak ere primeran moldatu ziren: Leire Astigarraga (4.), Ixone Juaristi (6.) eta Saioa Marcos (11.). Mutiletan, bestalde, Eneko Gonzalezek seigarren egin zuen, eta Julen Guillo hamaikagarrena izan zen.



## Hogei urki eta hogei gereziodo landatu zituzten ikasleek joan zen barixakuan, Zuhaitz Egunean



Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako ehun bat ikaslek hogei urki eta hogei gereziodo landatu zituzten joan zen barixakuan, Zuhaitz Egunean. Basoek eta zuhaitzek duten garrantziaz jabetzeko asmoz antolatzen dute urtero Zuhaitz Eguna Elgoibarko Udalak eta Debegeusak elkarlanean. Albitxuriko industrigunera bidean jardun zuten ikasleek, aitzurrak eskuan hartuta zuhaitzak landatzen, irakasleen eta Udaleko langileen laguntzaz. Argazki gehiago ikusteko [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) webgunean.

### Leggy Welsh Blond bakarlariaren kontzertua, domekan

Leggy Welsh Blond galestarrak kontzertua eskainiko du domekan, 19:00etan hasita, Kultur Etxeko Sotoan. Leggy Welsh Blond izen artistikoaren atzean Steven Williams gitarjole galestarra dago. Cardiffeko The Fugitives taldeko gitarrajolea da eta urtero etorri ohi da Euskal Herrira. Bere kontzertuetan rythm&bluesa eta rock klasikoa dira nagusi.

### Zuhaitz Gurrutzagak sotoan emango du kontzertua

Zuhaitz Gurrutzagak kontzertua eskainiko du Kultur Etxeko sotoan, apirilaren 27an. Gurrutzagak adierazi du bazeukala herrian kantatzeko go-goa. Zuhaitz Gurrutzagak kontzertuak ematen dihardu etengabe: apirilaren 19an Mikel Urdangarinekin joko du Donostiako Doka kafe antzokian, eta maiatzaren 26an Rosario Florensen aurretik abestuko du Zarautzen.

## Elgoibarko Kirol Patronatuko abonua Gipuzkoako merkeenetarikoa da

Kirola egiteko bi gela berri egokitu dituzte kiroldegian

**E**lgoibarko Udal Kirol Patronatuko arduradunek jakinarazitakoaren arabera, Kirol Patronatuko abonuaaren prezioa Gipuzkoako merkeenetarikoa da, Legazpia, Zumarraga eta Eibarko abonuekin batera. Patronatuko bazkideek 129,50 euroko kuota ordaindu behar dute urtean, eta abonua familiarak 235 euro balio ditu. Ramon Mugica Patronatuko zuzendariaren hitzetan, Patronatuko abonatuak egunean 0,35 euro ordainduz erabili ditzakete Olai-zaga kiroldegiko instalazioak.

### Kirola egiteko gune berriak

Aldagela eta kirol ikastaroetarako areto berriak izango ditu aurrerantzean Olai-zaga kiroldegiak. Orain arte biltegia zen gela bat eraberritu ostean sortu dute aldagela, eta wing-tsun, judo, dantza eta yoga klaseak



jasotzen dituzten lagunek erabili ahal izango dute. Bestalde, Taupada antzerki taldeak erabiltzen zuen lokala zenbait kirol ikastaro egiteko berreskuratu du Patronatuak. Areto berri honetan dantza ikastaroak eta ezintasuna dutenentzat kirol jarduera berezi bat jarriko dituzte martxan.

### Kadeteentzako txirindulari proba, apirilaren 2an

Lagun Taldeak antolatuta, Elgoibarko Lagun Taldea txirindulari proba jokatu dute domekan, kadete mailako lasterkariek. 16:00etan hasiko da proba Plaza Handian, eta 52 kilometroko ibilbidearen ostean, Santa Klara auzoan amaituko da.

### 60 urtetik gorakoentzat kirol saioak apirilean

Kirol Patronatuak eta Ongizate Sailak 60 urtetik gorakoentzako bi kirol saio antolatu dituzte apirilera. Hilaren 17an eta 24an egingo dituzte saioak, Mintxetako aparkalekuan dagoen parkean. Argiñe Gabilondok emango ditu saioak, eta besteak beste, bihotz taupadak eta ariketen indarra neurtzeko argibideak eman- go ditu. Parte hartu nahi dutenek Olai-zaga kiroldegian edo Mintxetan eman dezakete izena, apirilaren 16a baino lehen. Saioak doan izango dira.

### Morkaiko Eguna, maiatzaren 12an

Maiatzaren 12an izango da aurtengo Morkaiko Eguna, eta iaz bezala, helduentzako zein umeentzako ekintzak antolatu dituzte. Helduentzako Mendi Itzulia prestatu dute, eta umeentzako Itzultitxo eta Finalista Eguna. Horri lotuta, antolatzaileek jakinarazi dute bakoitzak egindako mendien zerrenda apirilaren 16rako entregatu behar zaiela antolatzaileei. Informazio gehiago [www.morkaiko.net](http://www.morkaiko.net) webgunean.

### Teknikazio ikastaroak Sanloko alebinentzat

2002an jaiotako neska-mutilentzat teknikazio ikastaroa antolatu du Sanlok, apirilaren 3rako eta 4rako. Olai-zaga kiroldegian izango da, 16:00etatik 17:30era. Besteak bestem Gojko Vučinić, Jorge Dueñas eta Patricia Pinedo eskubaloijokalaria eta entrenatzaile ezagunek hartuko dute parte. Partehartzea doakoa izango da.

## Bere esku dauka Alkortak igoera faserako sailkapena, liderrari irabazi ostean



Arg.: [www.sanlo.net](http://www.sanlo.net)

Alkorta taldeak hiru tantoko aldeaz irabazi zuen joan zen zapatuan Arrasateko Mugarri liderraren kontra. 32-29 izan zen azken emaitza, eta arrasatearrentzat denboraldiko lehenengo porrota izan zen. Emaitza honi esker, igoera fasea jokatzeko txartela ematen duen bigarren postuan jarraitzen du Alkortak, liga amaitzeko jardunaldi bakarraren faltan. Romoko Indupime taldeak ere irabazi egin zuen, eta Alkortak baino puntu bat gutxiagorekin hirugarren postuan dago. Hortaz, azken jardunaldian erabakiko da Ford Mugarri taldearekin batera igoera fasea nork jokatu duen. Alkortak Egiaren kontra jokatu du bihar Donostian, eta Sanloko autobusa jarri du jarraitzaileentzako. 16:00etan irtengo da Txarri-dunako errotondatik.

# Lehenengo mailara igotzea lortu du Mekatar xake taldeak

Hamar urte egin ditu taldeak bigarren mailan



**M**ekatar xake taldeak 2,5 eta 1,5 emaitzarekin irabazi zion Gros taldeari azken jardunaldian, eta emaitza horrekin lehenengo mailara igotzea lortu dute elgoibartarrek, hamar urtez bigarren mailan egon ostean. Denborali 'ona' egin dutela adierazi dute, izan ere, 15 garaipen, hiru berdinketa eta hamar porrot izan baitituzte. Taldeko kideek esandakoaren arabera, denboraldiko helburua bete dute eta oso pozik agertu dira.

## Iker Izagirre elgoibartarrak irabazi du Aiastiako Hiru Txirlo txapelketa

Zapatuan jokatu zuten Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako bigarren jartialdia Aiastian, eta Iker Izagirre elgoibartarrak irabazi zuen proba, bost txirloekin. Bigarrena Asola Berriko Sergio Rodriguez izan zen lau txirloekin, eta ondorengo hiru sailkatuak Joshua Lizundia, Angel Ibarluzea eta Unai Loiola aiastiarrek izan ziren. Hirugarren jartialdia bihar jokatuko dute, Soraluzeko Ezozia bolatokian.

## Ainhoa Lendinez hirugarren, Ermuko duatloian



Joan zen zapatuan jokatu zuten Ermuko duatloia, eta emakumezkoetan

Ainhoa Lendinezek hirugarren postua eskuratu zuen 1:13:41 denborarekin. Lauugarren postuan amaitzeko helburuarekin joan zen elgoibartarra lasterketara, eta hirugarren postua lortzea "ikaragarria" izan zela azaldu du.

Lendinezekin batera, beste hiru elgoibartarrek hartu zuten parte gizonezkoetan: Jose Antonio Ruiz sailkapeneko 20. postuan iritsi zen helmugara, 1:04:46 denborarekin; Javi Fernandezek 1:11:07 denbora egin zuen eta 52. lekuan amaitu zuen proba; azkenik, Ibon Serranok 1:15:43 denbora egin zuen bere estreinako duatloian.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Balmaseda 1 (3. maila)  
Oiarzun 1 – Elgoibar 0 (Erreg.)  
Elgoibar 0 – Billabona 1 (Ohorezko jub.)  
Lazkao 1 – Elgoibar 1 (Kad. A)  
Urola 1 – Elgoibar 1 (Kad. B)  
Ordizia 6 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)  
Sanse 11 – Elgoibar 0 (Inf. txiki)  
Elgoibar 4 – Usturbil 0 (Neskak)

### PILOTA

Udaberi Txapelketa  
Lagunak 14 – Ilunpe 22 (Kad.)  
Debarroko Txapelketa  
Lagunak 22 – Aretxabaleta 12 (Nag.)  
Lagunak 21 – Eskoriatza 22 (Nag.)

### ARETO FUTBOLA

Area 99 2 – Concepto Egile Elg. 2 (2B maila)  
King Kong Elg. 3 – Gamon 3 (Jub.)

### ESKUBALOA

Alkorta Elg. 32 – Arrasate 29 (Sen. mut.)  
Usturbil 22 – Tecnifuelle Elg. 26 (Sen. nesk.)  
Beristain Elg. 24 – Eibar B 30 (Jub. mut.)  
Grupo Eibar Elg. 30 – Eibar B 30 (Kad. mut.)  
Astigarraga Elg. 22 – Aiala Zarautz 24 (Kad. nesk.)  
Bankoa Elg. 21 – Ereintza B 22 (Inf. mut.)  
Egia 29 – Txarriduna Elg. 23 (Inf. mut.)  
Pulpo 18 – Ikus Elg. 38 (Inf. nesk.)  
Aloña A 27 – Aterpe Elg. 10 (Inf. nesk.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 31  
19:30 Concepto Egile Elg. – Laskorain (2B)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 31  
12:30 Elgoibar – Ikasberri (Kad. B)  
16:00 Elgoibar – Behobia (Erreg.)  
Domeka, 1  
10:00 Elgoibar – Zarautz (Aleb.)  
11:30 Elgoibar – Behobia (Kad. A)  
13:30 Elgoibar – Ilintxa (Inf. Txiki)  
16:00 Elgoibar – Vasconia (Ohorezko inf.)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 31  
10:00 Txarriduna Elg. – Amenabar (Inf. mut.)  
11:15 Ikus Elg. – Bera Bera (Inf. nesk.)  
12:30 Aterpe Elg. – Ereintza B (Inf. nesk.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakume elgoibartarra eta euskalduna naiz. Lanerako prest. Esperientzia ugari daukat dendan, tabernan, umeak zaintzen...
- ☎ **661 972 484**
- Emakume pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere.
- ☎ **690 925 929**
- Emakumea egunez, orduka lan egiteko prest.
- ☎ **690 134 485**
- Gizonezkoa lan egiteko prest. Baseri lanetan eta sol-datzaile lanetan esperientzia. (B,C,D, eta E gida-baimenak ditut).
- ☎ **673 513 120**
- Erizain laguntzaile titulodun emakumea persona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.
- ☎ **680 386 064**
- Emakumea pertsona nagusiak gauz zaintzeko prest, ordutegia : 20:00etatik 08:30 etara.
- ☎ **634 007 292**
- Gizon gaztea lan egiteko prest. Zerbitzari eta sukaldari esperientzia. Pertsona nagusiak zaintzeko prest.
- ☎ **692 332 871**
- Emakume gaztea umeak edo persona nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa eta sukaldeko lanak egingo nituzke.
- ☎ **686 052 084**
- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak.
- ☎ **696 295 098**
- LH, DBH eta batxilergoko klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak.
- ☎ **696 295 098**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest.
- ☎ **686 578 228**
- Emakumeak umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Garbiketa lanak egiteko prest, orduka edo interna. Erizain titulua dut. ☎ **669 010 359**

- Emakumea pertsona nagusiak zainduko lituzke, interna ere lan egingo luke.
- ☎ **628 665 395**
- Emakume arduratsua eta esperientziarekin lan bila dabil. Nagusiak zein umeak zainduz edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo Interna.
- ☎ **633 150 376**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia; geriatria eta pisologia titulua. ☎ **635 313 375**
- Emakume euskalduna lan bila. Esperientzia handia jende nagusia zaintzen eta garbiketa lanak egiten.
- ☎ **943 742 282**
- Emakumea lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest, garbiketa lanak, etxeko lanak egingo lituzke. Jakien maneiatzaile titulua daukat sukaldean lan egin ahal izateko.
- ☎ **678 292 120**
- Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.
- ☎ **636 581 194**
- Emakumea lanerako prest. Orduka edo interna.
- ☎ **650 152 866**

**ESKAITZA**

- Emakume euskalduna behar dugu, etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Autoa izatea beharrezkoa.
- ☎ **651 703 406**
- Urmeak zaintzeko pertsona euskalduna behar da, goizez, apirilaren 2tik 4ra eta apirilaren 10etik 13ra.
- ☎ **615 787 118**
- Emakumea behar da pertsona nagusia zaintzeko.
- ☎ **670 555 294**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAGAI**

- Mendaron etxea alokagai, 2 logela, komun bat, sukalde, trastelekua etxe gainean, logela guztiak kanpora ematen dute, eguzkitsua eta altzariekin.
- ☎ **635 716 731**

- Etxebizitza alokagai Elgoibarren, Ubitarten, etxe guztiz berria, bikote batentzat, 2 logela, sukalde amerikarra, oso eguzkitsua. ☎ **943 742 442**

**SALGAI**

- Etxea salgai Gasteizen. Erdigunean, auzo lasaian. Hiru logela, sukalde, bi komun, egongela-jangela, ganbara. Igogailua eta eraikin berri berria.
- ☎ **628 524 420**

**BESTELAKOAK**

- CSR motorra salgai, 125 cc, 2008. urtekoa, 2400 Km. Maletategia eta hiru kasko. Urtebeteko segurua.
- ☎ **630 850 390**
- Gure Bide elkarteak mahai eta aulkia oso merke saltzen ditu.
- ☎ **649 622 420**
- Gaztetxerako sukaldeko tresna elektrikoak eta butanozko edo kerozenozko kalefak behar ditugu. Eskerrik asko!
- ☎ **677 898 633**

**GARAJEAK**

- Garaje itxia salgai, Erretxindi auzoan.
- ☎ **628 524 420**
- Garaje itxia salgai Urasandin, Anayak eraikinean. 13m<sup>2</sup> eta goitegia.
- ☎ **620 856 768**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

ESKERTZA

**MARIA LEYARISTI GARATE**

2012ko martxoaren 25ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.






• Zorionak, **Oier!** Bihar zure lehenengo urtea egingo duzu! Muxu asko etxekoan, eta bereziki, Unaxen partez.



• Zorionak, **Alaine,** apirilaren 7an urtea beteiko duzulako. Patxo handi bat, sorgintxo.



• Zorionak, **Julen!** Azkenean iritsi da 8 urteak ospatzeko eguna! Patxo handi bat etxekoan eta bereziki, Naiaren partez.



• Zorionak, **Eneko,** aapirilaren 4an 12 urte egingo dituzulako. Familiakoan partez.



• Zorionak, **Nahia,** atzo 5 urte bete zenituelako. Familiakoan eta bereziki, ahizpa Malenen partez.



• Zorionak, **Nahia printzesa,** apirilaren 4an 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Jareren partez.



• Zorionak, **Ibai,** atzo 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoan eta, bereziki, Anderren partez.



• Zorionak, **Luna,** zure lehenengo urtebetzean. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Eliaren partez. Ondo pasa, printzesa.



• Zorionak, **Gorka,** gaur 6 urte egin dituzulako. Ondo pasa, txapeldun. Patxo bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Einer,** asteartean 5 urte egingo dituzulako. Junes zain dago bizkotxo goxogoxoa jateko! Muxu pila, etxekoan partez.



• Zorionak, **Nakor eta Naia!** Hiru hilabete bete dituzue! Familiakoan partez.



• Zuen egunak datoz! Aupa neskak! Ondo ondo pasa eta zorionak! 10 eta 11 urte dira potoloak, zorientzen zaituztegu, etxeko guztiak.



• Zorionak, tia **Nastia,** zure 13. urtebetzean. Uda iristeko zain gaude. Etxekoak eta bereziki, Paul eta Larak Mendarotik Ukrainara arteko muxu bat bidaltzen dizugu.



• Zorionak, **ama eta Maddi,** zuen urtebetetzean. Muxu handi bat, aitaren eta Erikaren partez.



• Zorionak, **Anuska eta Lukene,** 4 urte beteko dituzuelako. Oso ondo pasa igandean!



**AGURREN ATALEKO PREZIOAK**

Erretratu bakarreko agurra **4€**, argazki bikoitza **6€**, hirukoitza **8€** eta hiru lagunetik gorako taldeak **12€**.

**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**

Erretratu bakarreko agurra **3€**, argazki bikoitza **5€**, hirukoitza **7€** eta hiru lagunetik gorako taldeak **10€**.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKOBULEGORA**, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## Erretratu zaharra



**1982**

Aste honetako erretratu zaharra Nekane Varonak ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1982an aterata dago, Elgoibarko Institututuan, lehengo BUP mailako gela batean. Gogora ditzagun zeintzuk diren gazte horiek:

**Goian, ezkerretik eskumara:** Junkal, debarra, Ana, Monse, Irune Berasaluze, Sabina, Itziar, Ostolaza, Alex Garate, Ion Osoro. **Erdian:** Sorkunde, Miriam, Garbiñe, Miriam Ibarluzea, Arrate, Amparo, Ione, Ansola, Alberto, Gorriti, Imanol Urain. **Behean:** Ione Urain, Nekane Varona, Arantza, Ana (irakaslea), Alberto, Ernesto Agirrebeña, Arrieta, Patxi Ramirez, Fernando, Jon Oñederra eta Aitor Zuazubizkar.

I. URTEURRENA



## PEDRO JOSE ALBERDI ARRIOLA

*Inor ez dago hilda*

*oroitzapenean*

*bizi bada.*

*Maitasunez, etxekoak.*



2011ko apirilaren 3an hil zen, 68 urte zituela. I. urteurreneko meza eguaztena, apirilaren 4ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde aurretik.



## 31 zapatua

### Feria

16:30 Hil amaierako feria  
Plaza Txikian eta Nafarroa plazan.  
Eguerdiaren Kale Kantarien saioa.

### Dantza

16:30 Aurresku eta soinu zahar txapelketa  
Herriko Antzokian

### Skitaldia

19:30 Ainara Ladron herrira ekitaldia  
Plaza Handian, eta ondoren ekitaldia,  
triki-poteoa, afaria eta jaia gaztetxean.

## 1 domeka

### Kirola

10:00 Mendi irteera  
Ikastolako gurasoek antolatuta, Kukuarri  
mendira irteera.

### Dantza

11:00 Aurresku eta soinu zahar txapelketa  
Herriko Antzokian

## 9 martitzena

### Kultura

18:30 Erakusketa  
Ongarrik antolatuta, *Elkarrekin naturako elkarrekintzak* erakusketa. Kultur Etxean,  
hilaren 21era arte.



Aste Santuko ekintzak,  
**Ludotekan: apirilaren 3an, 10ean eta 12an.**  
16:00etatik 19:00etara!.



Igandean **Txixiburduntzia** egingo dugu  
San Lorentzon.  
17.30ean Gaztelekuan ikusiko dugu elkar".

### OKINDEGIA

1 domeka **EIZAGIRRE**      7 zapatua **EIZAGIRRE**  
5 eguna **FOTERO**      8 domeka **FOTERO**  
6 barixakua **IBARRENEA**      9 astelehena **IBARRENEA**

### BOTIKA ORDUTEGIAK

**9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00**

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

### GUARDIAK

#### Egunez

9:00 - 22:00

30 Ibañez  
31 Garitaonandia  
1 Garitaonandia  
2 Etxeberria  
3 Fernandez  
4 Garitaonandia  
5 Ibañez  
6 Ibañez  
7 Yudego  
8 Yudego  
9 Yudego  
10 Etxeberria  
11 Fernandez  
12 Yudego  
13 Zabaleta

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego  
Garitaonandia  
Garitaonandia  
Etxeberria  
Garitaonandia  
Garitaonandia  
Etxeberria  
Etxeberria  
Yudego  
Yudego  
Etxeberria  
Barrenetxea  
Yudego  
Etxeberria

## ZINEA

### «El invitado»

30 barixakua: 22:15  
31, zapatua: 19:00/22:15  
1, domeka: 19:00  
2, astelehena: 21:30

### «Aita zombia naiz»

1, domeka: 16:30

### «La invencion de Hugo»

5, eguna: 19:00/22:15  
6, barixakua: 22:15

### «War horse»

7, zapatua: 19:00/22:15  
8, domeka: 19:00  
9, astelehena: 21:30

### «Una aventura extraordinaria»

8, domeka: 16:30

### «Pina» (Ongarri)

12, eguna: 21:30

## OHARRA

Elgoibarko Izarrako langileen batzarrak bat egin zuen atzoko grebarekin. Hori dela-eta, aste honetako aldizkaria txikiagoa da. Bestalde, datorren astean ez dugu **BARREN** aldizkaria kaleratuko, Aste Santua delako. Hurrengo alea, beraz, apirilaren 13an jasoko duzue.



# ELKOBI KOOPERATIBA

## ZUK NAHI DUZUN ETXEA, KOSTAPREZIOAN

**E**txea erosteko premian dagoen talde batek Elkobi etxebizitza kooperatiba sortu du, etxea kostaprezioan eskuratzeko. Santa Klara auzoan egingo dituzte etxeak, eta kooperatibako kide bakoitzak berea izango du. 22 etxebizitza eraikiko dituzte; neurri eta ezaugarri diferenteetakoak. Kooperatiban hamar bat lagun daude momentuz, beraz, nahi duenak badauka oraindik izena emateko aukera. Gestoreek jakinarazi dutenaren arabera, izena ematen duten ondorengo hamabi lagunek etxe bat ziurtatuta dute. Iñaki Garcia Evolis Gestoriako kidearekin hitz egin du BARRENEk, etxebizitza kooperatibaren funtzionamendua ezagutzeko.



### ZER DA ETXEBIZITZA KOOPERATIBA?

Etxebizitza premian dagoen talde batek osatutako kooperatiba da. Bazkide bakoitzak hasierako ekarpen ekonomikoa egin behar du kooperatiba sortzeko. Ondoren, lursail bat aurkitu, erosi eta etxe eraikitzaile enpresa bat kontratatzen, du etxeak egiteko. Normalean, gestoria baten bidez egiten dituzte lan horiek.

### KOOPERATIBAREN ABANTAILAK

Bakoitzak dituen beharretara eginiko etxea aukeratu dezake, kostaprezioan. Kooperatibako bazkideek erabakiko dute nolako etxeak nahi dituzten: handiak, txikiak, balkoiarekin edo balkoirik gabe... eraikitzen hasi aurretik planoetan nahi beste aldaketa egiteko aukera dute. Eta abantailarik handiena salneurrian dago. Etxebizitzak kostaprezioan erosi daitezke. Une honetan merkatuko preziorik lehiakorrenak dituzte kooperatiban.

### ARRISKURIK EZ

Ez dago batere arriskurik. Kooperatiba sortu, eta giltzak entregatzen direnean desegin egiten da kooperatiba. Edozein arazorengatik etxebizitzak ez balira eraikiko, bazkide bakoitzak hasieran jarritako diru kopurua berreskuratuko luke. Kasu horretan, gestoriak izango lituzke galerak, baina bazkideek diru guztia berreskuratuko lukete.

### BAZKIDE IZATEKO BALDINTZAK

Adinez nagusia izatea, eta soldata edo diru-sarrerak edukitzea. Azken batean, etxebizitzak balio duenaren %30 jarri behar du bazkideak, eta %70 banketxeak finantzatuko du. Dena dela, banketxe batzuk zubikredituak ematen dituzte kostuaren %30a ez dute-nentzat.

### 22 ETXE, SANTA KLARAN

Santa Klara auzoan eraikiko dituzte etxeak, Soarte etxea zegoen gunean. 22 etxebizitza egingo ditugu, tamaina eta ezaugarri desberdinetakoak. Txikiak, ertainak eta handiak daude aukeran. Momentuz hamar bazkide daude kooperatiban, beraz, beste hamabirentzako lekua dago. Herri batzuetan zozketa egin behar izan dute, eraikitzeko etxeak baino bazkide gehiago dituztelako, baina Elgoibar-ko kasuan, etortzen diren ondorengo hamabi lagun-ek etxebizitza edukiko dute.





**Garaje itxia kiroldegi parean  
ALOKAGAI!**

**☎ 678 779 386**

**Kiroldegi ondoko etxe berrietan 2  
gelako apartamentua SALGAI.  
Eguzkitsua eta oso polita. Garajea  
aukeran. Deitu konpromisorik gabe.  
Merezi du etxea ikustek.**

**☎ 675 007 661**



**INMOBILIARIA  
PS XXI**

Inmobiliaria zerbitzuak  
eta barneko arkitekturea

**943 742 306**

[www.inmobiliariapsxxi.com](http://www.inmobiliariapsxxi.com)

**Mendaron etxea ALOKAGAI.  
2 logela, komun bat, sukaldea,  
trastelekua etxe gainean, logela  
guztiak kanpora ematen dute,  
eguzkitsua eta altzariekin.**

**☎ 635 716 731**

**Elgoibar**



3 logela, 2 komun eta  
terrazadun etxebizitza.  
209.000 €.

Aliko duplexa: 2 logela, terraza handia  
eta tximinia egongelan.  
239.000 €.



Geratzen den  
aliko bakarra: 2 logela  
eta terrazaduna.

2 logelako etxebizitzak  
eta atikoak  
229.000 €tik aurrera

**Santa Clara**



grupo eibar

BULEGO Nagusia

Plaza José IV<sup>o</sup>, Sot. 10 - 4890  
20018 Oronoia - San Sebastián

943 31 66 11

[www.grupoebibar.com](http://www.grupoebibar.com)

**Ez galdu aukera... AZKEN ETXEAK ...Kalitate ezin hobekak**



**Deba**

# ELGOIBAR

Santa Klara Auzoa

# 140.000

€<sup>tik</sup>

aurrerako 22 etxebizitza salgai, erdigunetik gertu.

*Azalera modu ugarritan antolatzeko aukera, 57 eta 133m<sup>2</sup> artean.*

*aukeratu zeurea!*

**MARRADUN  
GARAJEAK  
SALGAI**

*Izena emandako ordenean etxea zurea izango da, zozketarik gabe...*

*zatoz zure etxea aukeratzera!*

Informazioa:  
San Bartolomé, 3 · Elgoibar

**ELKOBI**

**943 03 11 68**   
elgoibar@evolvisgestión.com

*Bermatutako ekarpen ekonomikoak.*

AST > OST 10:30 > 14:00, 17:00 > 20:30  
LAR 10:30 > 14:00